

GAIZKI ERRANKA

Oraindik oraingo diren orduko torturak



SANTI LEONÉ

Talde-kereila bat aurkeztu dute bartz torturaturak Antonio Gonzalez Pacheco Billy el Niñoren kontra. Lehenago izan dira bertze kereila batzuk, baina hau da bartz biktimak batera aurkeztu duten lehena. Gizateriaren kontrako krimenak, preskribatzen ez direnak, leporatzen saiatuko diren heinean, esperantza pittin bat ba omen dute.

Bartz biktimetarik bat, Esteban Cabal, elkarrizketatu zuen Mamen Mendizabal kazetariak *La Sexta* telebistan. Cabal zazpi egunez torturatu zuen Gonzalez Pachecok, 1976an -Franco hil ondotik, alegia- eta artean biktima adingabea zelarik -hamazazpi urte zituen-. Cabalek salatu omen zuen torturatzailea, baina, adingabea izanik, aitaren babesa behar zuen. Aitak ez zuen salaketa aitzinat eraman nahi izan; ama, berriz, prest omen zegoen, baina, gizonaren baime-na behar zuen.

Cabalek azpimarratu du, bertzeak bertze, torturatzaileak jaso dituen lau dominetarik hiru demokrazian eman zizkiotela: 1977an, 1980an eta 1982an. Mendizabalek galdegin dio ea orduan, torturatu izan zelarik, babesgabe sentitu ote zen; eta zer sentitzen duen orain ultraeskuina "falangismoaz harro agertzen delarik" edo iragana berriz piztu nahi duelarik. Ondotik, elkarrizketa une batez eten eta Grande-Marlaska jarduneko ministroa -epaile zelarik sekulan torturaren arrastorik ikusi ez zuen berbera- sartu eta argitu du zein arrazoi teknikorik galarazten duten Gonzalez Pachecori domina horiek kentzea.

Ondorioa argia da: tortura iraganeko kontua da, eta kontu juridiko teknikoak direla ez dira torturatzaileak zigortzen ahal. Torturatu-entestigantzak balio dezake, balio izatekotan, muturreko eskuina -zer da hori?- kritikatzeko, inolaz ere ez demokrazia zalantzan jartzeko. Hori ere narrazio konpartitua da.

Baina orduko torturak oraingo dira oraindik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ABUZTUAREN 10^{EAN}
ALTSASUKO GAZTEEK
3 URTE BETEKO DITUZTE
KARTZELAN...



ADUR



"ZURE HERRIAREN HIZKUNTZA BERRESKURATZEAN ZURE BURUA DESKOLONIZATZEN ARI ZARA INBASIO ESTATALETIK, JURIDIKOTIK, LINGUISTIKOTIK"

ANDI PORTAVOZ ETA GONZALO LUANKO, HIP-HOP ABESLARI MAPUTXEAK:

"Hizkuntzak zure herriaren pentsatzeko modua marrazten du, munduan egoteko manera. Herriaren jakintza eta bihotza da. Zure herriaren hizkuntza berreskuratzean zure burua deskolonizatzen ari zara, inbasio estataletik, juridikotik, linguistikotik deskolonizatzen. Erresistentzia modu bat da".

(Arg.: Luanko ezkerrean eta Portavoz eskuinean).

(ARGIA.EUS, 2019/07/19)